



AMEZKETAKO UDALA



AMEZKETAKO UDALEKO ROKODROMOAREN ERABILERRAKO ARAUDIA

Amezketako Udaleko rokodromoa Bartolome Deuna 35 zenbakiko eraikinaren beheko solairuan, erreka aldeko lokalean kokatzen da eta bertan eskaladarako gunea aurkitzen da. Jarraian lokala erabiltzeko arautegia jasotzen da.

Lehena. Amezketa Udalak udal jabetzakoa den rokodromoa egokitu du eta bere erabilerrako aukera eskaintzen du.

Rokodromoaren erabilerrako funtzionamendua:

Bigarrena. Rokodromoa erabiltzeko interesdunak eskaera inprimakia beteko du, dagokion prezio publikoa ordaindu, eta honekin batera, arautegi hau beteko duela ere sinatuko du.

Hirugarrena. Udalak baimena emango dio, giltza inteligntea eskatzailearen eskura jarritz. Baimena eta giltza pertsonalak izango dira.

Laugarrena. Rokodromoaren erabilera asteko egun guztietan egin daiteke, asteleheneetik igandera, goizeko 9:00etatik, gaueko 9:00etara.

Bosgarrena. Rokodromoko argia erabiltzen denean, azken erabiltzailea izanez gero gelatik irteterakoan dena itzali beharko da. Rokodromoa txukun izatea guztion ardura da eta hau mesdetzearren erratza eta fregona jarriko dira. Bestalde, materialetan sor daitezkeen matxurak Udalari jakinaraziko zaizkio.

Seigarrena. Galerazita egongo da:

- Rokodromotik materiala ateratzea.
- Bertan erretzea.

Zazpigarrena. Gomendatzen da:

- Eskalatzeko katu oinetakoak erabiltzea.
- Bertako materiala era egokian erabiltzea, lesioak etab. sahiesteko.
- Magnesioa erabili ondoren, eremua garbi uztea.
- Kirola egiten hasi aurretik, 5-10 minutuko berotze ariketak egitea.
- Argiak itzaltzea ez ahaztea eta gela txukun mantentzea.

Zortzigarrena. Rokodromoan dagoen kirol materialarekin norberak egiten duen jarduera fisikoaren ardura erabiltzailearen esku dago, Amezketako Udalak horren aurrean ez du inolako erantzukizunik izango.

Lokalaren erabiltzaileak:

Bederatzigarrena. Rokodromoaren erabiltzaile izateko eta baimena eskuratzeko 16 urtetik gorako adina izan behar da. 16 urtetik beherako adin txikikoek, bazkide izatea beharrik gabe, heldu baten laguntzarekin erabili ahal izango dute rokodromoa, baldin eta heldua bazkidea bada.

Lokala erabiltzeagatiko prezio publikoa:

Hamargarrena. Udalak rokodromoa erabiltzeko ematen duen baimena eta eskaintzen duen zerbitzua pertsonala da eta prezio publiko bat ordaindu beharko da, ekitaldi bakoitzerako onartzen diren Zerbitzu Publikoak eskaini eta Jarduera Administrazioak burutzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen 6. Ordenantza Fiskalean jasota egongo dena. Amezketan erroldatutakoak eta erroldatuta ez daudenen artean prezio publikoa desberdina izango da.

Araudia ez betetzea:

Hamaikagarrena. Baimena pertsonala denez, partaide direnen zerrenda lokalean ikusgai egongo da. Baimenik gabe norbait bertara joango balitz, partaideen ardura izango da hari ohartaraztea.

Hamabigarrena. Erabiltzailearen batek araudi honetan jasotakoa betetzen ez badu, aurreko puntuan aipatu bezala, bi aldiz ohartarazi eta giltza intelijentea izateko eskubidea ukatuko zaio urtebetez.

Hamahirugarrena. Udal arduradun edo langileak edozein momentuan rokodromoan sartzeko ahalmena izango dute, bertako erabilpenaren egokitasuna eta erabiltzaileen bazkide-izaera ikuskatzeko, rokodromoaren erabilpen zuzena bermatze aldera.

Hamalagarrena. Giltza intelijentea, galdu edo hondatuko balitz, ordezkoa emango zaio eta bere balioa erabiltzaileari kobratuko zaio.

Azken xedapena:

Araudi hau 2023ko ekainaren 8an Alkatearen 2023/119 Dekretuz onartutakoa da eta egun hori geroztik dago indarrean eta aldatzea edo ezereztea erabakitzen ez den bitartean indarrean jarraituko du.